



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko apirilaren 16a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena. Akats zuzenketa ([2. or.](#)).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina ([3. or.](#)).
- Tuterako Foruzaingoaren polizia etxeko obren kontratazio espedienteari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina ([22. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, 37. zenbakian, 2003ko martxoaren 28an, iragarki bat argitaratu zen foru lege proiektu eta foru lege proposamen hauek zirela eta: Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege

proposamena. Iragarki horretan akats bat antze-
man denez, konpondu egiten da honen bidez.

“...gainen ponentziak egindako txostena”
dioen tokian esan behar du “...gainen batzordeak
emaniko irizpena”.

Iruñean, 2003ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko uztailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**AURKIBIDEA**

Terminoen glosategia (3. or.).

- I. Sarrera (4. or.).
 - II. Helburua (6. or.).
 - III. Norainokoa (6. or.).
 - IV. Mugak (7. or.).
 - V. Kudeaketa prozesuaren deskribapena (7. or.).
 - VI. PFEZaren kudeaketari buruzko zenbateko eta datu nagusiak (8. or.).
 - VI.1. Aitorpenak (8. or.).
 - VI.2. Zentsuak (8. or.).
 - VI.3. Dirusarrerren jatorria (9. or.).
 - VI.4. Antolamendua (9. or.).
 - VII. Ondorio eta gomendioak (10. or.).
- I. **eranskina.** 1992-2000 aitorpen gaineratua (16. or.).
 - II. **eranskina.** 1998-2000 urteetako aitorpen gaineratua (17. or.).

III. **eranskina.** 1992-1998 aitorpen gaineratua. Ehuneko alderaketa. 1992. urtea=100 (19. or.).

IV. **eranskina.** Aitorpen-egileen, likidazio-oinarriaren eta likidazio-oinarriaren tarteen arabera kuota osoaren ehunekoak. 1998, 1999 eta 2000. urteak (20. or.).

V. **eranskina.** Diruzaintzako mugimenduak. 1998. urteko PFEZa (21. or.).

TERMINOEN GLOSATEGIA

Txostenaren irakurketa errazteko, zerga honekin zerikusia duten kontzeptu nagusien glosategia egin dugu

Zergagaia. Zergagaia da subjektu pasiboak lortzen duen errenta. Errenta, hauek osatzen dute:

- Lanaren etekinak.
- Kapitalaren etekinak.
- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.
- Ondare gehikuntzak eta murrizketak.
- Errenten esleipen eta egozketak.

Subjektu pasiboa. Zergak Foru Komunitatean ordaintzen dituen pertsona fisikoa.

Zerga-oinarria. Zergaldiko errentaren zenbatekoa.

Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia, horrela ezartzen ahalko da:

- **Zuzeneko estimazioa.** Honetarako, sozietateen gaineko zergako arauak aplikatuko dira.
- **Estimazio objektiboa.** Besteak beste, honako hauek finkatuko dute: jarduera eta laborantzaren izaerak eta modulu objektiboek, hala nola, eragiketen bolumenak, langile kopuruak, erosketen zenbatekoak, ustiategi azalerak edo erabilitako aktibo finkoek.

Zerga-oinarria. Zati orokorra. Subjektu pasiboaren errenta guztiek osatzen dute, ondoko puntuak aipatzen dituen ondare gehikuntzak eta murrizketak kontuan hartu gabe:

Zerga-oinarria. Zati berezia. Zergaldi bakoitzean, eta ondasun edo eskubideen ondare-aldaketa dela-eta agerian gelditutako ondare gehikuntza eta murrizketak beraien artean integratu eta konpentsatu ondoren aterako den saldo positiboa, betiere aldaketa hori baino urtebete lehenago eskuratutako ondasun edo eskubideetan gertatzen badira.

Likidazio-oinarria. Zerga-oinarriari murrizketak egin ondoko emaitza. Zerga-oinarri orokorretik ala berezitik etorri, orokorra edo berezia izan daiteke.

Murrizketak. Likidazio oinarria iristeko zerga-oinarria txikiagotzen duten zenbatekoak. Hauen artean:

- Pentsio planetako diru-ekarpenak.
- Gutxieneko pertsonala
- Gutxieneko familiarra. Subjektu pasiboarekin bizi diren aurreko eta ondorengo ahaideen arabera.

Zerga gardentasuna. Zerga gardentasuneko araubidean sozietate gardenek eskuraturiko likidazio oinarri positiboak haien bazkideei egotziko zaizkie, zerga honen subjektu pasiboak baitira egoitza Espainian badute.

Kuota osoa. Likidazio oinarri orokorrari tasa progresiboa eta likidazio oinarri bereziari %18ko tasa finkoa aplikatu ondoren lortzen ditugun kuoten batura da.

Kuota likidoa. Kuota osoari kenkariak aplikatu ondorengo kuota.

Kenkariak. Kuota likidora iristeko kuota osoa txikiagotzen duten zenbatekoak. Batez ere kontzeptu hauek izaten dira kenkari:

- Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioa.
- Etxebizitza alokatzea
- Dohaintzak
- Lana
- Dibidenduak.

Kuota diferentziala. Kuota likidoa txikiagotzearen emaitza. Txikiagotzea eragin lezakete atxikipenek, kontura egindako dirusarrerak eta zatikako ordainketak.

Atxikipenak. Hirugarren batek (sozietateak izan ohi dira) ogasunean subjektu pasiboaren kontura egiten duen dirusarreraren zenbatekoa.

Baterako zerga-ordainketa. Familia unitate bakarra osatzen duten pertsona fisikoek zerga batera ordaindu ahal izanen dute.

Familia unitatea. Zergari dagokionez, familia unitatea ezkontideek edo bikote egonkorrek osatzen dute, familiaren gaineko legediak dioenez eta, baleude, adin gutxiko seme-alabek eta ezindutako adindunek. Ez balego ezkontza loturarik, aitak edo amak eta batekin edo bestearekin bizi diren seme-alabek osatuko dute.

Zergaldia eta zergaren sortzapena. Zergaldia urte naturala izanen da eta zerga sortuko da urte bakoitzeko abenduaren 31n.

I. SARRERA

Foru eraentzaren kariaz, Nafarroako tributu eta finantza jardura Hitzarmen Ekonomikoaren sistema tradizionalak arautzen du.

Gaur egunera arte hauexek sinatu dira, 1877koa, 1841eko legearen ekarpenak gaurkotzen dituen; 1927koa, harmonizatze irizpideak dituen, zentzu hertsian lehenbiziko Hitzarmen Ekonomikoa; 1941ekoa, Larraz ministroaren tributu-erreformaren ondorioz izenpetua; 1969koa, 1957 eta 1969ko zerga erreformetara egokitzeak hitzarmen berria (enpresa trafikoen gaineko zergaren ezarpena); eta azkenik, 1990ean, 1978ko zerga erreforma eta Konstituzioa onartzearen ondorioz, balio erantsiaren gaineko zerga ezarri eta Europako Batasunean sartu izanaren ondorioz.

Gaur egun esaten ahal dugu Hitzarmen Ekonomikoa dela Nafarroako zerga antolamendua eta estatukoarekiko harremanak erregulatzen dituen oinarritzko arau juridikoa. Lan honi dagokionez, hauek dira Hitzarmenaren ezaugarri berezienak:

a) Izaera mugagabea.

b) Hitzarmeneko xedapenek estatuko sistemaren eta foru sistemaren arteko harmonizatze irizpideak arautzen dituzte. Hots, nork zer administrazioan ordaindu behar dituen zergak

c) Nafarroak Estatuari ordaindu beharrekoa zehazten du.

Nafarroaren eskumen historiko hau Hitzarmenaren lehenbiziko artikuluan ageri zaigu, bertan esaten baitu foru eraentzaren kariaz, Nafarroak baduela ahalmena tributu araubide propioa mantendu, ezarri eta arautzeko. Eta ondoko artikuluan ondokoak errespetatu beharko dituela esaten du:

a) Hitzarmen Ekonomiko honetan Nafarroako tributu araubidea eta Estatuko araubide orokorra harmonizatzeke ezartzen diren irizpideak.

b) Hitzarmen Ekonomiko honetan ezarri beza-la, Estatuari dagozkion eskumenak.

c) Estatuak izenpeturiko nazioarteko hitzarmen edo itunak.

d) Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 1. artikulua aipatzen duen solidaritate printzipioa.

e) Batasun konstituzionalari dagozkion eskumen, ahalmen eta instituzioak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 2. artikulua ezarritakoaren arabera.

Praktikan honek esan nahi du, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera, Nafarroak Estatuko lurraldean unean-unean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta formulak ezarriko dituela zeharkako zergetan, eta zuzeneko zergak arautzeko eta kudeatzeko gaitasun osoa duela. Hala ere, gaitasun honek, estatuko araudiari dagokionez, berekin dakar zerga nagusietako oinarritzko gaiekiko alderik ez duten aldaketak ezartzea, kontuan hartzen baitu Estatu berean dauden zerga araubideen artean ezin dela ezberdintasun erabatekorik izan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) dagokionez, Nafarroako arau nagusiak loturik daude Estatuarekin. Horrela, 1978an Nafarroako Foru Diputazioak, abenduaren 28ko akordioaren bidez, zergaren gaineko arauak ezarri zituen. Arau horiek, Estatuko legearen ereduari jarraiki (Fernández Ordóñez-en erreforma), zerga bakarrean bildu zituzten lehengo zergak, ondasunen gainekoak edo errealeak. Arau horrek, gaur eguneko zergen oinarri, aurrekoekin alderatuz bazituen oinarritzko bi alderdi:

- Zerga-gaia errenta osora hedatzea, edozein iturritatik datorrela ere. Baita ondare gehikuntza eta murrizketetara ere.

- Zergaren progresibotasuna, duela gutxi agerian utzia errenta osorako tarifa progresibo bat dela medio. Horrek barne hartzen ditu egoera pertsonala, denborazko, eta horrekin zerikusirik lukeen edozein inguruabar.

Aurrerago, 1989an, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 20ko 45/1989 epaiaren ondotik, aldaketa nabarmena gertatuko da, familia unitateetan biltzen diren pertsonen baterako zerga-ordainketaren kontrakoa, errentak zerga-oinarri bakarrean kontzentratzeak kuota handiagoak eragiten baitzuten, aplikatu beharreko karga-tasa handiagoa zelako.

Beste aldaketa garrantzitsu bat gertatzen da, nahiz eta ordura arteko araubidearekin erabateko

haustura ez ekarri, maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legea onartzearekin. Lege hau, oro har, Estatuko 18/1991 legearen irizpideei jarraitzen zaie.

Nabarmenezkoa da lege honetan, araubide komunarekiko bereizgarri, baterako zerga ordainketarako sistema. Estatuko esparruan familia unitateko pertsona fisikoen gaineko errentak metaturik kargatzen dira, baina norbanakoen zerga ordainketetan ezartzen den eskalaz bestelakoa erabiliz; foru esparruan ordea, errentak, zerga-oinarriak eta kuota osoak bereizirik kalkulatu dira eta kuota guztien baturak osatzen du familia unitateko kuota osoa.

1998an, berriz ere, Estatuko legearen irizpideei jarraiki, funtsezko aldaketa gertatu zen. Aldaketaren ezaugarri nagusia da kontuan hartzea zerga ordaindu behar duen errenta ez dela subjektuak "lortu" duena baizik eta "erabilgarri" duena; esan nahi da, zergadunak erabil dezakeena bere eta bere erantzukizunpeko pertsonen beharrianak ase ondotik. Horretarako, gutxienezko kopuru salbetsia ezarriko da.

Era berean, karga progresiboa ezarri zen likidazio oinarri orokorarentzat, eta beste bat finkoa, %18koa, likidazio oinarri bereziarentzat. Likidazio oinarri berezia osatuko du, zergaldi bakoitzean, ondasun edo eskubideen ondare-aldaketa dela eta agerian gelditutako ondare gehikuntza eta murrizketak beraien artean integratu eta konpentsatu ondoren aterako den emaitzak, betiere aldaketa horiek urtebete lehenago eskuratutako ondare edo eskubideetan gertatzen badira. Hau da, 1978ko legearen irizpidea, alegia, errenta iturria edozein delarik ere, errenta bere osotasunean kargatzekoa, aldatu egin zuen.

Abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legeak, tributu neurrien gainekoak, zergaren araudiaren agindu batzuk aldatu ditu; horietan esanguratsuen, kuotaren familiako kenkariak kendu eta horien orde z oinarrian egin beharreko murrizketak ezarri izana.

Arestian aipaturiko arauak PFEZrekin loturiko zerga-araudiaren zutabe garrantzitsuena osatzen dute; hala ere, beharrezkoa da nabarmentzea zergaren ezaugarrietako bat araudiaren etengabeko eta ohiko aldaketa dela. Izan ere, aurrekontu legeak edo neurri fiskalen legeak gutxienez, garrantzi handiagoko edo txikiagoko aldaketak eragiten dituzte zerga araudian.

PFEZk Foru Ogasunaren dirusarreretan duen garrantzia ondoko taulan ikus dezakegu:

Ingresos presupuestarios (en millones de pesetas)

Urtea	Dirusar. guztira	Zerga zuzenak	Zerga guztietatik zuzenekoak, %	PFEZ	Zerga guztietatik PFEZ, %
1997	277.940	123.970	45	82.413	30
1998	349.607	134.805	39	89.528	26
1999	351.570	139.432	40	93.070	26
2000	380.596	165.039	43	106.862	28

Beraz, 2000ko ekitaldian, PFEZ bidez erdietsiriko sarrerek zerga zuzenen % 65 osatzen dute, eta aurrekontu-sarreretako guztizkoaren % 28.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kudeaketan eragiten duten arau nagusiak hauek dira:

- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa, 1990eko uztailaren 31n izenpeturikoa. Hitzarmen honek akordio bidezko aldaketak izan zituen, 1992ko abenduaren 21eko eta 1997ko urriaren 28ko datarekin.

- Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa. Lege honen artikulua aldatu zituzten tributu neurrien gaineko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legeak, bikote egonkorrentzako berdintasunaren gaineko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak, eta zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legeak.

- Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Erregelamenduari buruzkoa, abenduaren 30eko 635/1999 Foru Dekretuak, urtarrilaren 10eko 10/2000 Foru Dekretuak eta urriaren 9ko 328/2000 Foru Dekretuak aldatua.

- Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra.

- Uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Dirubilketa Erregelamendua onesten duena.

- Uztailaren 2ko 178/2001 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren berraztertze errekurtsoaren eta erreklamazio ekonomiko-administratiboaren Erregelamendua onesten duena.

- Ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren Tributu Ikuskaritzaren Erregelamendua onesten duena.

II. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzeko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Comptos Ganberaren ekintza-programan sartu zen pertsona fisikoen gaineko zergaren kudeaketaren fiskalizazio-txostena egin beharra.

Txosten honen helburua da Nafarroako Tributu Ogasunak zerga honi dagokionez egiten duen kudeaketaren gaineko gure ondorioak aurkeztea. Horretarako, zerga kudeatzeko prozedurak aztertu ditugu (araudia, erroldak egitea, aitortpenak egitea, berrikusketak, dirubilketa,...), aitortpen gaineratuak ikertu ditugu datu nagusiak eta hauen bilakaera ezagutzeko, eta zergaren gaineko ikerketak aztertu ditugu.

Ondorioz, hauek dira zergaren kudeaketa hobetzeko egoki irizten ditugun gomendioak.

III. NORAINOKOA

Arestiko helburuak kontuan izanik, lana bideratu dugu, egun pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga kudeatzeko Nafarroako Tributu Ogasunak segitu duen prozeduraren analisira, eta hondarreko urteotako zerga-aitortpen gaineratuak erkatzera. Lan hau burutu ahal izateko nahitaezkoa izan da zergaren gaineko araudi fiskala bildu eta aztertzea, eta baita zergaren kudeaketaren ardura dutenekin elkarrizketak egitea ere.

Tributu bilketa Nafarroako Tributu Ogasunak egiten du zerga guztietarako oro har, eta beraz, ez da zerga jakin bateko kudeaketa organoen erantzukizuna. Nafarroako Comptos Ganberak 2000ko urtarrilean txostena egin zuen dirubilketa-

ren kudeaketaren ganean, eta beraz, gai honi dagokionez ez da berariazko lanik egin. 2000ko urtarrileko txostenera joko dugu beharrezkoa denean.

Metodologiari dagokionean, Nafarroako Comptos Ganberak erabili ohi dituen programak aplikatu dira. Programa horiek Ganberaren auditoretza gidan agertzen dira, eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako sektore publikoko auditoretza printzipioei eta araei jarraituz garatu dira.

Bi zatitan egituraturik dago txostena. Lehenbiziko lauetan sarrera, helburuak, norainokoa eta mugak ageri dira; hurrengo biek prozeduren deskribapen laburra eta zergari buruzko zenbateko eta datu garrantzitsuenak ageri dira; azken bietan, gure iritzia eta egoki jotzen ditugun ondorio eta gomendioak bildu ditugu. Bost eranskin gaineratu dira zergari buruzko datu nagusiekin.

IV. MUGAK

Txosten hau egitean eragina izan duten mugak honako hauek dira:

- Ezin izan dira urteen arteko alderaketak egin, arauetan etengabe egiten diren aldaketen ondorioz; izan ere, tributu kontzeptu ugari urtetik urtera aldatzen dira, eta horregatik ezin dira alderaketak modu homogean egin.

- Ezin izan da adospenik egin aitorten gaineratuko datuen eta aurrekontuko datuen artean, ondokoak direla eta:

- * Aurrekontuko dirusarreraren kontzeptuak (atxikipenak) ez datoz guztiz bat zergakoekin.

- * Zergaren aitorpenean bildutako zenbatekoak aurrekontu-ekitaldi batzuei egozten zaizkie.

- * Harmonizazio fiskalak, hitzarmen ekonomiko-tik ondorioztatzen denak, distortsioak sortzen ditu atxikipenen bidez dirusarrerak egiten diren tributu administrazioaren eta tributatu beharra daukan subjektu pasiboaren artean. Distortsio horiek zama orokorrean egiten diren ekarpenetan edo kupoan doikuntzak eginez egokitu behar dira.

- Txosten hau egiteko garaian, Tributu Ogasuna datu fiskalei buruzko basea berrantolatzen eta modernizatzen ari da. Bi lanak batera gertatzean, datu guztiak ez zeuden eskura eta, batzuetan, aldaketa prozesuak bukatu gabe; horrenbestez, berrikusi gabe egotean, akatsen bat egon daiteke.

Halaber, tributu arloko fitxategiak "fitxategi biziak" direla jo daiteke, etengabe aldatzen baitira deklarazio, berrikuspen eta ikuskapenen ondorioz;

hori dela eta, datuak, azken ekitaldietakoak batez ere, aldatu egin dira.

Azterketa lana azarotik martxora bitarte egin du auditoria talde batek, zeina auditore batek eta auditoriako teknikari hiruk osatu baitute. Horiekin elkarlanean aritu dira Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ekonomia eta Ogasun Departamentuko langileei, eta batez ere EBko Garapen Zerbitzuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

V. KUDEAKETA PROZESUAREN DESKRI-BAPENA

1999ko irailean, Nafarroako Tributu Ogasunaren erakunde autonomoa eratu zen, antzinako Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren eginkizun eta langileak ia guztiz biltzen dituen eta administrazioaren izenean eta haren kontura Nafarroako Ogasun Publikoaren tributu-sistema aplikatzeko erantzukizuna duena: zuzenbide publikoko dirusarrerak kudeatu, ikuskatu eta biltzea.

Epigrafe honetan, PFEZaren kudeaketari buruzko laburpen bat egiten dugu.

Kudeaketa honetarako, Ogasunak bi aitorten mota dauzka, eta bi aitorten horiek ordaintzeko betebeharrak bat eta izaera informatiboko beste batzuk sortzen dituzte.

Lehenbizikoen artean, aipa daitezke subjektu pasiboak "errentaren kanpaina" izeneko aldiari (normalean, zergaldiaren hurrengo urteko apirila eta ekaina bitartean) egiten duen aitortea eta subjektu pasiboaren kontura diharduten entitateek eginiko konturako ordainketak.

Bigarrenen artean, zergaren oinarrietan eragina duten zenbait dirusarrerari buruz, ordainsarien urteko laburpen gisa, edo atxikipenenei buruz informatzen dutenak... edo fitxategi batzuk gaurkotu eta mantentzeko erabiltzen direnak; esate baterako, gizarte segurantzaren afiliazio datuak.

Honek esan nahi du aitorten informatibo batzuek elikatzen dela sistema eta deklarazio horiek Ogasunari zergadunei buruzko datuak emateko balio dutela, nork aitortu behar duen (erolden mantentzea) eta zein dirusarrera aitortu behar dituen jakiteko (atxikipenak); beste aitorten batzuk Foru Ogasunean eginiko funts dirusarrerak sortutakoak dira (atxikipenak), zergadunaren kontura enpresek eta finantza entitateek egiten dituztenak; azkenik, aitortea bera dago, aurrekoekin aldatzen dena eta egiaztagiriak aldean badituen. Aitorten honekin batera, kontura ordaindutako kopuruen birdoitze bat egiten da: hartara, aitorte-

nen % 70i Ogasunak dirua itzultzen die eta gainerako aitorpenen kasuan Ogasunari ordaindu behar zaio.

Aitorpen informatiboan datuak kasuan kasuko onuradunei "esleitzen" zaizkie, halako moduan non subjektu pasiboak emandako datuak aipatu aitorpen informatiboetan ageri direnekin alderatu ahalko diren, eta, gainera, hartara, subjektu pasiboak aitorpena egin behar duenean, Ogasunak haren dirusarrerei buruz duen informazioa ezagutu ahal izanen du.

Aitorpena eskuz nahiz informatika bidez egin daiteke Ogasunaren beraren zerbitzuez baliatuz nahiz zerbitzu hori bezeroei eskaintzen dieten entitate laguntzaileen bitartez (aholku-enpresak, finantza entitateak eta abar).

Aitorpenak grabatu egiten dira, eta baliozkotzat jo ondoren, hau da, koherentzia egiaztatu ondoren (izena, NANA...), bi modutako berrikuspen informatikoak egiten zaizkio.

Lehenbizikoa datuen zuzentasunari eta barneko koherentziari dagokio (kalkuluak eta abar); bigarrenak, urtero aldatzen diren formula batzuen arabera, akatsak dituzten aitorpenak edo egiaztatu beharreko egoeran daudenak adierazten ditu, kontzeptu batzuen zenbatekoak zehaztu behar direlako edo bat ez datozelako Ogasunean daudenekin.

Berrikuspen hori Tributuei buruzko Foru Legeko jarraibideekin egiten dira, eta, batzuetan, Ikuskatzailetzari ere igortzen zaizkio. Berrikuspenean egiten den bitartean, aitorpenak "trantsizio egoeran" geratzen dira (trantsizio horren barruan era askotako egoerak sartzen dira).

Behin tributuei buruzko fitxategien aitorpena onartu ondoren, ordaindu beharreko kopurua edo itzuli beharrekoa Dirubilketa Zerbitzuari eskualdatzen zaio, zehazki "hirugarrenen kudeaketaren" arlokoei, eta zerbitzu hori da ordainketaz edo zorren kobrantzaz arduratzen dena, gainerako zergekin egiten duen bezala.

Bestalde, "Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren eta Errekerimenduen Atala" da zerga-betebeharren betetzea egiaztatu behar duena eta behar diren erreklamazioak aurkeztu behar dituen, nahiz eta, kobrantzen kasuan gertatzen den bezala, lana orokorra izan, zerga guztietakoa.

Ikuskatzailetzak bere programak egiten ditu; hori dela eta, subjektu pasiboak ikuskapenak egin dakizkioke, ezarritako plan baten arabera.

Zergadunak, Ogasunak eginiko likidazioarekin ados ez badago, erreklamazioa aurkeztu ahal izanen du organo kudeatzailearen aurrean edo Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean (tributu arloko antzinako txosten eta ebazpen organoa), epaitegietara jo aurretik.

Prozeduraren laburpen honetatik ondoriozta daitekeen bezala, kontuan hartuta gainera urtean 270.000 aitorpen inguru egiten direla gehi aitorpen informatiboak eta konturako ordainketak, ondoriozta dezakegu prozesu kuantitatiboki garrantzitsua dela, konplexua, arrazoi hauek direla eta: jatorri ezberdinetako informazioak koordinatzea eskatzen du, ia herritar guztiengan eragina du eta aurrekontu-dirusarrenean % 30 inguru egiten du.

VI. PFEZAREN KUDEAKETARI BURUZKO ZENBATEKO ETA DATU NAGUSIAK

VI.1. AITORPENAK

Ondoren zenbateko eta datu biribildu batzuk ematen ditugu, zergaren kudeaketaren ikuspegia eta erabili beharreko informazioa eman ditzaketena.

Aitorpenak:	Aitorpenen kopurua
Ogasunaren bulegoak:	30.000
Entitate laguntzaileak	190.000
Eskuzkoak	50.000
GUZTIRA	270.000
Horietatik:	
Positiboak	80.000
Negatiboak	190.000
Atxikipen eta beste konturako ordainketen araberako aitorpen-egileak:	
Higigarrien kapitala	1.000
Zatiketak	20.000
Higiezinen kapitala	7.000
GUZTIRA	48.00

Aldizkako zenbait deklarazio eta urteko laburpen bat aurkezten direla jakin behar da.

VI.2. ZENTSUAK

PFEZarekin loturikoak hogeita hamar dira. Zentsu horietan, laneko atxikipenetatik hasi eta dohaintzetara arte hartzen dutenak, zenbait kontzeptu sartu dira, aitortu beharrekoak edo kolektibo jakin batenak izan eta zergan eragina dutenak kasu.

Zentsu horiek, aitorpen informatiboetatik datoren barneko eta kanpoko informazioaz elikatzen

direnak, ez-betetzeak erreklamatzeko bidea ematen dutenak dira.

VI.3. DIRUSARREREN JATORRIA

1998. urteko aitorten gaineratua aztertu dugu –1999an aitortutakoa–, zeren eta lanean hasteko garaian aurreko arauen arabera egindako azkena baitzen; hau da, zerga-oinarrian murrizpenak sartu gabe. 2000koa oraindik ere ez zegoen esku-
ra.

Ondoren haren laburpena emanen dugu:

Dirusarreraren kontzeptua	(pezetak, milioitan)	
	Zenbaitakoa	Guzt. g/ %
Laneko atxikipena	79.683	85
Kapitalaren atxikipena	11.603	12
Zatitzea	4.837	5
Kapitalaren atxikipena, hilekoa	306	-
Kapitalaren atxikipena, inplizitua	41	-
Kapitalaren atxikipena, errentamenduak barne	1.657	2
Azken likidazioa:	-3.959	-4
Negatiboak (itzultzekoak)	-18.750	-20
Positiboak (ordaintzekoak)	14.791	16
GUZTIRA	94.170	100

Datu hauetatik ondoriozta daitekeen bezala, laneko atxikipenek dirubilketa garbiaren % 85 egiten dute, nahiz eta kontuan hartu behar den ehune-ko 20 itzultzen dela; neurri handi batean, kontzeptu horri zor zaizkio.

Azpimarratu beharra dago errentaren kanpainan eginiko amaierako likidazioak saldo garbi negatibo txiki bat dakarkiola Ogasunari; halere, aitorten-egileen artean aipatzeko moduko banakako doitze bat gertatu ohi da.

Nafarroako Tributu Ogasunaren estimazioen arabera, kalkulaturik dago zazpi milioi datu erabiltzen direla errenta kanpainan.

VI.4. ANTOLAMENDUA

Zergaren kudeaketa unitate organiko batzuek egiten dute; horietako bakoitza zergaren alderdi zehatzez arduratzen da, eta, batzuetan, beste zerga batzuekin batera kudeatzen dute.

Ondoko taulan, horietako bakoitzaren eginkizuna aurkezten da, laburpen moduan:

Zerbitzua	Atala	Funtzioa	Pertsona kopurua
Ogasunaren kudeaketa	Informazioaren tratamendua	Prozesuen kontrola eta artxiboa	11
	Koordinazio informatikoa PFEZ eta ondare kanpaina	Kanpainaren antolamendua eta entitate laguntzaileak	56
Zuzeneko tributuak eta enpresa handiak	PFEZa eta ondarea	Aholkularitza teknikoa, likidazioak eta errekurtsioen ebazpena	12
Zeharkako tributuak	Errekerimenduak eta JEZa	Zentsu eta errekerimenduen kudeaketa	4
Zergadunari laguntza eta informazioa ematea	Zergadunari laguntza ematea Informazioa eta lurraldeko bulegoak	Aitorpen-egileei informazioa eman eta harrera egitea	34
Zerga ikuskaritza	Informazioa eta plangintza	Ikuskapena	30
Dirubilketa	Geroratzek eta kontrola Dirubilketa	Zordunen eta hartzekodunen kudeaketa	11
	Dirubilketa exekutiboa Prozedura bereziak		
Guztira			158

158 pertsona horiek –ez dute denek PFEZarekin denbora osoa ematen– gehi zerbitzuko sei zuzendariak dira zergaren kudeaketaz arduratzen direnak. Gainera, kontuan hartu behar da Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa errekurtsioak ebatzteaz arduratzen dela, eta beste unitate batzuek (Idazkaritza Teknikoa, Araubide Juridiko eta Arauen Garapenerako Atala) Departamentuaren izaera orokorreko lanak egiten dituztela.

VII. ONDORIO ETA GOMENDIOAK.

Hurrengo ondorioak atera ditugu burutu dugun lanetik:

A. Araudiari buruzkoak

1. 1978ko erreformatik aurrera, PFEZari buruzko tributu arauak konplexuak eta aldakorregiak direla esan daiteke.

Egoera hori gertatzen da, gure ustez, zergak zergadunengan eragina duten inguruabar pertsonalen multzo bat sartu nahi duelako. Horrek eta azken urte hauetan mundu sozial eta ekonomikoan gertatzen ari diren aldaketa azkarrek arauen konplexutasuna eragiten dute.

Zerga neurri ekonomiko jakin batzuk bultzatu nahiz oztopardatzeko erabiltzeak (aurrezkoa sustatu, produkzio sektore jakin bati lagundu eta abar) eta sistema ekonomikoan eginiko aurrerapen azkarrek arauak etengabe aldatzeko beharra dakarte. Izan ere, ikus daiteke ia urtero arauak aldatzen direla, zenbatekoak gaurkotzeaz gainera, logikoa den bezala. Aldaketa horiek eragina izan dute 1978tik aurrera PFEZari buruz onetsitako hiru lege orokorretan: 1978-12-28koa; 6/1992 Foru Legea eta 22/1998 Foru Legea.

2. Arauetan egindako aldaketa ugari horiek “segurtasun juridikorik eza” eragin dezakete zergadunarengan.

Herritarren erabaki ekonomiko batzuk epe luzean egiten dira; horietan, osagai fiskalak nabarmentzeko moduko eragina du (aurrezteko formula hautatzea, pentsio plan batean parte hartzea ala ez, etxebizitza erostea eta abar). Arauetan etengabe eginiko aldaketek, kasu batzuetan atzera-indarrarekin ere bai, eragin nabarmena

izan dezakete erabaki horietan. Hartara, zergadunak nolabaiteko “segurtasun juridiko eza” nozi dezake.

3. Arauen konplexutasunaren eta egoera personalak bildu nahi izatearen ondorioz, zenbait egoera administratiboki kudeatzen zailak dira, batez ere kontuan hartzen bada zerga honek eragina duela ia herritar guztiengan.

Hartara, bada, “subjektu pasiboaren zergaldiak batera hartuz gero” etxebizitza erostegatik kenkari gehieneko bat ezartzeak berekin dakar zergaldi guztietarako erregistro berezi bat mantentzea. Logikoa denez, zergadun bati aplikatzen horren errazak diren gai horiek, kudeaketa konplikatu egiten dute kolektibo handi batez ari garenean.

B. Prozedurari buruz

4. PFEZaren kudeaketa zenbait zerbitzutan dago banatuta; gure ustez, koordinazio handiagoa behar da, zeren eta, praktikan, lana gehiegi zatiturik baitago.

Nafarroako Tributu Ogasunaren antolamendua ez da soilik zergaren moten arabera egin, izan ere neurri handi batean kudeaketa-prozesuen arabera egituratzen baita; horrenbestez, unitate batzuek zenbait zergatarako balio duen prozesua kudeatzen dute. Hori dela eta, VI.4 epigrafean ikus daitekeen bezala, PFEZaren zuzeneko kudeaketa gutxienez ere sei zerbitzuko eta hamaika atalek hartzen dute parte, beste unitate orokor batzuk ahaztu gabe; esate baterako, idazkaritza tekniko eta abar.

Zatitze horrek berekin dakar unitate bakoitzean batzuetan lan berezitu egitea, neurri batean zergaren kudeaketaren ikuspegi orokorra galduta.

5. PFEZak informazio bolumen handia eskatzen duen zerga bat da; informazio horretaz baliatzeko, baliabide informatiko ugari behar dira.

Zerga kudeatzeko, baliabide informatiko ugari behar dira, bai erabiltzen diren zazpi milioi inguruko datuak erabiltzeko, bai aitorpenak berak egiteko ere.

Hauxe da azken urteetan aurkeztutako aitorpenen bilakaera:

	1996	%	2000	%	Igoera, %
Ogasuneko bulegoak	42.998	16	28.916	11	-33
Entitate laguntzaileak	173.023	66	190.238	70	10
Automatikoak, guztira	216.021	82	219.154	81	1
Eskuzkoak	47.815	18	50.971	19	7
Guztira	263.836	100	270.025	100	2

Datu horietatik ondoriozta daitekeen bezala, aurkeztutako bost aitorpenetik bat eskuz egiten da. Automatikoan kasuan, gora ari dira egiten entitate laguntzaileek egindakoak, Ogasun bulegoetan eginikoen kaltetan; izan ere, azken horiek 1996 eta 2000 bitarteko urteetan heren bat behera egin dute.

Entitate laguntzaileen bitartez egindako aitorpenen kopuruak gora egin izanak eta teknologia berriak eskaintzen dituzten aukerek bidea ematen digute pentsatzeko Ogasunak berak egindako aitorpenek agian gero eta garrantzi gutxiago izanen dutela; azpimarratu beharra dago prozesu hori dela giza-baliabide gehien hartzen dituen, 56 pertsona, horietako gehienak kanpainan aritzen diren langile finko jarraigabeak.

6. Azpimarratu beharra dago dirusarrera gehienak konturako ordainketen bitartez biltzen direla, horiek kontrolatzeko langile bereziak eduki gabe.

Hau da, konturako ordainketak sistematizatzaren ondorioz, lan horretarako oso langile gutxi behar dira; hori, ordea, ez da lortu banakako aitorpenekin. Atxikipen guztien kudeaketa eta kontrola zenbait unitatek egiten dute; ez dago unitate bat horretan berariaz aritzeko.

7. Ezin da zergaren datuen eta kanpoko nahiz barruko beste erlazio batzuen arteko gurutzaketa zehatzik egin.

Hartara, ikus dezakegu balizko aitorpen-egileen zentsu orokor bat badago ere denek ez dutela aitortzeko beharrik; izan ere, adibidez, litekeena da aitortzeko gutxieneko kopurura iristea.

Kapital atxikipenak, esate baterako, pertsona fisikoenak nahiz juridikoenak edo beste administrazio batean deklaratu beharreko pertsonenak izan daitezke. Halaber, Nafarroako administrazioan deklaratzeko duten pertsonak dirusarrerak izan ditzakete beste lurralde batzuetan, eta haien atxikipenak beren administrazioetan sartzen dira.

Gurutzaketa horiek eragotz dezakeen beste gai bat dibidenduen ondoriozko ordainketen asig-nazioa da; izan ere, hitzarmenez, ordaintzen duen enpresaren lurralde bakoitzean eginiko eragiketen bolumenaren arabera (zifra erlatiboa) egiten da. Horrek, noski, zerikusi gutxi dauka subjektu pasiboak tributu-administrazio batean nahiz bestean deklaratzeko duen betebeharrarekin.

8. Kolektibo batzuei betebeharraren fiskalen bete-zea errazteko xedez, zenbait egoeratan, likidazio-oinarria ezar daiteke, zeinu, indize edo moduluen bitartez. Sistema hau, normalean zerga-oinarri txikiagoa izateaz gainera, zergapetzearen katea erraztu eta informazioa haustea erraztu dezakeen faktore bat da; horrek guztiak, opakutasun fiskalera lerratzea eragin dezaketen neurriak hartzea ekar dezake.

9. Tributuari buruzko foru lege orokorra berriki onetsi izanak berme handiagoa ematen dio Nafarroako zergadunari; baina, logikoa denez, tramite gehiago ezarri ditu, jarduketak eta jakinarazpenak justifikatzeko zorrotzago jokatu behar delako.

C. Datuak direla eta

C.1. Aitorpen gaineratuak direla eta.

I. II. eta III. eranskinetan azken urteetako aitorpen gaineratuak ikus daitezke. Aztertzen hasteko baldintza gisa, esan behar da aitorpenetako fitxategiak "bizirik" daudela; hori dela eta, egunero aldatzen dira berrikuspenen, aitorpen berrien, ikuskapenen eta abarren ondorioz. Kontuan hartu behar da, gainera, arauetan eginiko aldaketek zaildu egiten dutela alderaketa egitea, kontzeptuak ez baitira denboran zehar homogeneoak.

10. 1992-1998 aldia alderatuta, pezetza korrontetan, honakoa antzeman daiteke:

- Zergaren zerga-oinarriak % 46ko hazkundera izan duela, nahiz eta haren osagaiek aurkako jorak izan. Hartara, lanbide-jardueren eta enpresa-jardueren laneko etekinek % 56, 70 eta 64 egin dute gora, hurrenez hurren; higitarrien kapitalaren

etekinek, ordea, % 25 egin dute behera eta higiezinaren kapitalaren etekinak negatiboak izatera iragan dira 1995etik aitzina.

- Pentsio planetarako ekarpenek % 309 egin dute gora, likidazio-oinarri erregularrak % 37 eta irregularrak, azkenik, % 686. Hauek dira zerga-oinarriak ehuneko 51 eta kuota osoak % 59 gora egitea eragin duten faktore nagusiak.

- Ondorengoak eta aurrekoak direla-eta aplikatzen diren kenkariak ehuneko 2 eta 9 bitarte egin dute behera, hurrenez hurren; 65 urte baino gehiagokoenak eta minusbaliatuenak, ordea, ehuneko 46 eta 98 bitarte egin dute gora, hurrenez hurren.

- Gaixotasun gastuen ondoriozko kenkariak eta bizi aseguruaren primek –1999an kendu ziren horiek– %186 eta 151 egin zuten gora, hurrenez hurren. Dohaintzek % 653 egin zuten gora, eta dibidendu ondoriozko kenkariak ehuneko 388. Etxebizitzan inbertitzeagatiko kenkariak ehuneko 122 egin zuen gora, eta 6.264 milioi pezetataraino iritsi zen.

- Kuota likidoak % 62 egin zuen gora 92-98 aldian.

11. 1999 eta 2000 urteak ezin dira modu homogeneoan alderatu aurreko urteekin, zergako arauetan izaniko aldaketan ondorioz.

Eranskinean 1998, 1999 eta 2000. urteetako aitortpenak ageri dira; haien azalpenak ondokoa oharrezko bidea ematen dute:

- 1999 eta 2000. urteetan zerga-oinarriaren gehikuntza nabarmen bat gertatu da; haren osagai nagusiak lan etekin garbiaren eta higiezinaren kapitalaren gora egitea da; izan ere, negatiboak izatetik positiboak izatera iragan dira.

Lehenbiziko kasuan, urte horietako jarduerak gora egitearen ondorioz eta justifikazio zaileko gastuen % 5aren murrizketa desagertzearen ondorioz.

Bigarren kasuan, etxebizitzak erosteko maileguetako korrituak oinarritik kentzearen ondorioz.

- Hala eta guztiz ere, likidazio-oinarriak beharada nabarmena izan du, bi urteetan oinarriaren murrizketaren kontzeptuak sartu direlako, eta kuotaren kenkariak kendu direlako.

- 1999an, “gutxieneko pertsonala” dela-eta eginitako murrizketak sartu ziren, eta 2000n aurrekoak eta ondorengoei dagozkienak sartu dira.

- Kenkariak dagokienez, kuotaren kenkariak oinarritzko murrizketa izatera pasatzeaz gainera –aurreko ataletan iruzkindu dugu hori–, azpimarratzekoa da “gaixotasun gastuei” eta “bizi aseguruaren primei” dagozkienak desagertu direla. Halaber, azpimarratzekoa da “lan etekinak” eta “etxebizitza” izenekoak hazkundera, azken hori korrituak sartzearen ondorioz.

Aitortpen horien daturik azpimarragarrienak ondoren adierazitakoak dira:

	1998	1999	2000
Zerga-oinarria	648.794	759.437	827.578
Likidazio oinarria	676.383	592.886	599.170
Kuota osoa	131.314	144.710	146.971
Kuota likidoa.	92.375	100.026	105.792
K.L./Z.O.(%)	14,23	13,17	12,78
K.L./Z.O.(%)	13,66	16,87	17,66
K.L./Z.O.(%)	20,24	19,05	17,76
K.L./Z.O.(%)	19,41	24,41	24,53

Hau da, kuota 1999 eta 1998 bitarte 7.700 milioitan hazi zen, eta 5.700 milioi 2000 eta 1999 bitarte.

Kuota likidoaren eta zerga-oinarriaren arteko erlazioa % 13 ingurukoa da.

C.2. Beste datu batzuk.

12. IV. eranskinean, aitortpen-egilearen, likidazio-oinarriaren eta azken urte hauetako kuota osoaren arteko erlazioa ikus daiteke. Ezin da kuota likidoa sartu, zeren eta baterako aitortpenetan bakarra baita; hori dela eta, estimazio batzuk egin beharko liriateke zergadunen artean banatze-ko.

Azterketa honetatik nabarmentzekoa da:

a) 500.000 pezeta baino likidazio-oinarri txikiagoa duten aitortpen-egileen kopurua nabarmen hazi da eta oinarriaren 7,5 milioi bitarteko tarte guztietan ere behera egin du; kopuru horretatik aurrerakoetan, berriz, hazi egin da.

b) 2000. urteari erreparatuta, aitortpen-egileen % 51ek milioi bat baino likidazio-oinarri txikiagoa dute, eta haien kuota osoak guztizkoaren % 5,30 egiten du. 7,5 milioi baino likidazio-oinarri handiagoa duten aitortpen-egileek ehuneko 1,75 egiten dute; haien kuota, berriz, ehuneko 22,60 da.

13. Etekinen jatorriari erreparatuta, ondoko taulan ikus dezakegu azken urteetako jardueraren nagusiaren ondoriozko jarduerako batez besteko etekinen bilakaera:

	1998 Zergadun bakoitzeko batez besteko etekina	1999 Zergadun bakoitzeko batez besteko etekina	2000 Zergadun bakoitzeko batez besteko etekina	Gehikuntza 2000/1998
Lanaren etekinak	2.209.274	2.432.276	2.538.278	% 14,89
Higikorren kapitalaren etekinak	300.521	325.596	341.621	% 13,68
Higiezinen kapitalaren etekinak	336.600	1.131.831	1.247.212	% 270,53
Lanbide jardueren etekina.	3.404.528	3.427.733	3.515.792	% 3,27
Enpresa jardueren etekina.	1.722.682	1.895.021	2.021.574	% 17,35

Enpresa jardueren etekinak aztertzerakoan, kontuan hartu behar da batzuetan "moduluen" arabera tributatu beharra dagoela, eta horrek, logikoa denez, eragina duela etekinaren kalkuluan.

C.3. Kobrانتzen eta ordainketen fluxua.

14. 1998ko Hirugarrenen fitxategietako datuetatik (CAT) —V. eranskinean ikus daitezke—, ondokoa ondoriozta daiteke:

Kanpainaren amaierako likidazioak 260.662 zergadunengan du eragina. Hona azalpena:

	Milioiak	Zergadunak
Negatiboak	-18.750	187.355
Positiboak	14.791	73.307
Oso tara	-3.959	260.662

Zergadunek zenbait kontzepturengatik kontura eginiko ekarpenek 98.129 milioi pezeta egiten dute, eta 48.210 zergadunei dagozkie. Horietako batzuk bikoizturik daude, baldin eta, esate baterako, laneko eta kapitaleko atxikipenak egiten badira.

Zergadun horietatik lauhun baino gutxiagok kopuruaren % 65 egiten dute.

Zergadun handiena, gainerakoen aldean asko nabarmentzen dena, Nafarroako Gobernua bera da, bera baita lan eta kapital atxikipenen kontzeptuan diru gehien ematen duena; izan ere, dirusarrera guztien ehuneko 17 egiten du.

D. Iruzurri buruz

15. Ez dugu azterlan berririk batere topatu, PFEZaren arloan egon daitekeen iruzurra neuritzen duenik, Estatuko inongo tributu-administratziotan.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago iruzurrak, funtsean, bi alde dituela: "aitorpen ez-osen" ondoriozkoa, non etekinen zati bat ezkutatzen den; eta dirusarrera-iturri guztiak ezkutatzen ditue-

na (dirua atzerrian, ezkutuko ekonomia edo delituekintzen ondoriozkoa).

Aitorpenetako datuak errenta nazionalaren datuekin alderatzeak —azken hori kontabilitate nazionalaren bidez edo bestelako estatistika batzuen bidez lortua—, ondoko arazoak dauzka:

a) Irizpide ezberdinekin sorturiko zifrak dira, egokitzapenak behar dituztenak.

b) Errentaren datuak ez dira zehatzak; estimazio estatistikoei dagozkie.

c) Errenta kalkulatzeko prozesua konplexua da, eta lau edo bost urteko atzerapenarekin egiten da.

d) Datu fiskalek aldaketak izaten dituzte etengabe, arauetan egiten diren aldaketen ondorioz.

Hori dela eta, magnitude horiek alderatzea baino, garrantzitsuagoa litzateke bide sistematiko bat edukitzea datu fiskalek makromagnitude horiekiko duten erlazioa ezarriko duen denborasail bat lortu ahal izateko.

Iruzuraren balioespenean zeharka eragiten duten gai batzuk azter ditzakegu:

- 2000ko aitorpenen gainean eginiko berrikusketetan, kudeaketa prozesuan, kasuetako ehuneko 8 ingurutan, gorabeherak izan dira; horrek ez du esan nahi horietan guztietan akatsak daudenik edo kuotaren gehikuntza ematen denik. Hartara lorturiko kuoten gehikuntzak 852 milioi pezeta egin du.

- 2001ean ikuskaritza fiskalak PFEZaren aitorpena dela eta 260 zergadunen kasuak ikuskatu ditu, eta haiei 909 akta ireki dizkie; 256 zehapen espediente baino gehiago egin dira, eta bide horretatik 900 milioi pezetako kuota eskuratu da (1.300 milioi pezeta interes, errekarigu eta zehapenekin). Kontuan hartu behar da ikuskaritzak zerga eta aldi bakoitzeko akta bat egiten duela; horrenbestez, akten kopurua zergadunen kopurua baino handiagoa da.

Azken urte hauetan, zerga hori dela eta, ez da delitu fiskalen prozedurarik ireki.

- Honakoak dira PFEZerako zentsaturik agertzen diren pertsonak:

Urtea	Pertsona kopurua
1997	367.229
1998	374.624
1999	380.967
2000	396.563

- Zentsaturik ageri diren atzerritarren kopurua ere egiaztatu ahal izan dugu. Informazio hori IFZaren zenbakitik ateratzen da.

Urtea	Pertsona kopurua
1997	1.817
1998	2.489
1999	3.093
2000	4.989

- Zentsu eta Errekerimenduen Atalak zentsuan egoteagatik aitortu beharra duten baina aitortpenik aurkeztu ez duten pertsonen deklarazioak eskatzen ditu.

Erreklamazio hori bi fasetan egiten da: lehena telefonoz eta bigarrena, erantzunik izan ez bada, idatziz.

2001ean, PFEZa dela eta, ondoko telefonozko erreklamazioak egin dira, PFEZaren aitortpenak direla eta:

Urtea	Zenbat
1997	796
1998	867
1999	761
2000	361
Guztira	2.785

- Zerga Gaietarako Txosten eta Ebazpen Organoa, egungo Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, aurkezturiko errekurtsuak egiaztatu ditugu. Hona emaitza:

1994 eta 2001 bitarte, NAEAn 3.555 errekurtsu aurkeztu dira PFEZa dela eta; horietatik % 36 osorik edo haien zati bat baietsi dira; % 27 ezetsi dira; % 6 ez ziren onartu, eta % 36 ebazteko zeuden.

Errekurtsu horiek arrazoi ezberdinengatik jarritzen dira, besteak beste, zergaren kontzeptuengatik, nahiz eta ugarienak, errekurtsuen % 75 egiten dutenak, "salbuespenei eta zergapean ez egotea-

ri" dagozkienak eta etxebizitza gaiei buruzkoak izan, 1.143 eta 619 errekurtsu hurrenez hurren.

Datu horietatik guztietatik ondorioztatzen da berrikuspenen eta ikuskaritzaren ondoriozko dirusarrerak ez direla dirubilketaren ehuneko batera ere iristen, eta zergadunen zentsuak urtero hazten doazela, atzerritarrena barne.

E. Kobrantzei buruz

16. Kobrantzen kudeaketa, zerga guztiena, Dirubilketa Zerbitzuak egiten du; hori dela eta, PFEZaren kudeaketa ezin da orokorretik bereizi. Comptos Ganberak 2000n "dirubilketaren kudeaketa" aurrekontu-programari buruzko txosten bat eman zuen; hartara jo beharko da (2000-03-09ko 22. NPAO).

F. Azterlanei buruz

17. Azterlan edo estimazioak egiten dira zenbait neurri fiskalek izan dezaketen kostua balioes- teko, eta, oro har, ez da geroko azterlanik egiten, nahiz eta normalean PFEZaren kanpaina aurkez- terakoan aurrekoaren laburpena egin daitekeen.

Ez da Tributu Ogasunaren jarduerari buruzko oroit-idazkirik egiten, ez eta, horrenbestez, PFE- Zarenik eta gastu fiskalenik ere.

Hau dena kontutan hartuz, hauxe gomenda- tzen dugu:

- *Arauei egonkortasunik handiena ematea, halako moduan non, batez ere epe luzerako hartu behar diren erabaki ekonomikoetarako, zergadu- nak segurtasun juridikorik handiena izanen duen.*

- *Zerga erraztea, zeren eta betebeharrak fiskalen betetzeak herritar guztiak hartzen baititu eta arauen konplexutasunak zergadunak haiek bete ahal izatea zailtzen duen.*

Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago Ogasunaren bide propioen bitartez eta beste enti- tate laguntzaile batzuen bitartez ere betebeharrak fis- kalak betetzeko erraztasunak ematen direla.

- *Arauek ezartzerakoan, kontuan hartu behar dira haien kudeaketak eta kontrolak ekarriko dituzten ondorio administratiboak.*

- *PFEZaren kudeaketan eragina duten unitate organiko ezberdinen arteko koordinazioa areago- tzea eta unitate horien eginkizunak zentralizatu edo biltzeko aukera aztertzea. Halaber, aztertu beharra dago ea langileria egokia dagoen urteko dirusarreraren % 30 egiten duen zerga kudeatzeko. Gogoratu beharra dago langile gehienak zergadu- nei aitortpena egiten laguntzeko lanetan aritzen direla.*

- Zergadunek betebeharrak fiskalak betetzea errazteko eta bideratzeko neurriak hartzea. Arreta berezia eskaini behar zaie dirubilletaren ehuneko handi bat egiten duten zergadunei.

Horri dagokionez, garrantzitsua da informazioaren teknologiaren aurrerapenei ahal den arreta handiena eskaintzea; gai horretan, Ogasunak buru-buruan egon behar du, eta zergadunek haiek erabil dezaten lagundu behar du.

- Zerga egoki kudeatzeko garrantzitsua den kanpoko informazioa lortu eta tratatzeko orduan arintasun handiena bilatzea.

- Zerga kudeatzeko lanak indartzea. Egungo bitarteko informatikoen aukera ematen dute zergaren kudeaketa ia osoa egiteko, ikuskaritzara jo beharrik gabe; izan ere, azken horrek, logikoa denez, Ogasunak kasu muturrekoenei heltzeko bidea izan behar du.

- Ogasunarentzat opakua diren zergadunengan gerta daitezkeen iruzurrari antzemateko erabili beharreko bideak eta bitartekoak aztertzea.

- Aztertzea gardentasun fiskalaren araubideak sortu zenean zeuzkan helburuak gaur betetzen ote dituen; horrenbestez, aztertu beharko da, halaber, hari eustea komeni ote den, eta, kasu bada, ahal den kasu gutxienean erabili.

- Moduluen arabera tributazio sistemak kentzeko aukera aztertzea. Kasu bada, haiek ahal den guztian murriztea.

- Urtero, Tributu Ogasunaren oroit-idazki bat egitea, PFEZaren datuak bilduz.

- Ogasunaren urteko dirusarreraren ia herena PFEZetik datorrenez eta zerga honek herritar guztiengan eragina duenez, Tributu Ogasunak ahal den azterlan, simulazio eta analisi gehien eduki behar ditu. Azken batean, zerga ahal den guztian ezagutu behar da, egoki jotzen diren neurri fiskalak ahal den zorrotasun teknikorik handienarekin ezarri ahal izateko, kontuan hartuta Nafarroak historikoki izan duen araugintza-ahalmena.

Gogoratu beharra dago Nafarroak Estatuarekin dauzkan harreman fiskalak gidatzen duen hitzarmen sistema ezohikoa dela doktrina fiskalean, eta autore batzuek kokatu izan dutela "bi estaturen artean, tributu-araubideak direla-eta, egon daitezkeen harremanen parean".

Zergaren jokaeraren ezagutza zabal hori oso komenigarria izan daiteke etorkizunean, baldin eta Europako Batasunean Europako balizko homogeneizazio fiskal bat ekar lezaketen aurrerapenak egiten badira.

Lan hau egiteko ardura izan duen Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko ekainaren 27an.

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

I. eranskina. 1992-2000 aitorten gaineratua

	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000
Lanaren etekinak	347.109.080	367.174.301	413.767.573	448.371.404	481.983.457	510.360.003	541.686.125	622.826.502	679.894.636
Higigarrien kapitalaren etekinak	46.074.385	48.961.258	41.915.144	45.648.106	50.404.159	40.528.687	34.398.130	33.865.197	39.335.937
Higiezinen kapitalaren etekinak	349.969	1.541.336	1.117.929	(2.801.666)	(4.537.586)	(3.504.119)	(1.793.057)	11.593.566	12.810.989
Lanbide etekinak	13.003.911	14.282.441	15.913.596	17.053.416	18.923.537	19.654.637	22.060.980	22.811.737	24.391.566
Enpresa jardueren etekinak	35.205.354	40.736.236	45.496.405	49.335.137	53.457.871	55.921.545	57.628.745	61.953.398	63.686.828
Zergapetze oin. posit. garden. fisk.	1.700.737	2.006.444	1.416.393	2.375.054	1.875.017	1.906.239	2.262.769	2.482.690	2.807.183
Gehikuntza erregular garbiak	2.381.904	2.688.829	2.366.165	1.919.636	2.806.928	3.909.353	4.108.179	3.904.588	4.669.242
Zerga-oinarri erregularra	445.825.342	478.390.846	521.993.205	561.902.177	604.913.383	628.776.345	648.794.423	759.436.745	827.578.312
Derrigorrezko mutualitateak	115.383	121.499	137.999	198.158	204.377	219.244	282.429	333.126	333.352
Pentsio planetarako ekarpenak	3.245.757	4.598.002	5.686.590	6.594.427	8.315.951	10.536.566	13.282.967	15.229.783	18.483.893
Elikagaien urteko ordainketak	671.114	265.610	295.343	323.353	333.398	406.026	394.978	430.634	667.194
Subjektu pasiboaren gutxieneko pertsonala								163.481.694	
Gutxieneko pertsonala, ezkontidea								28.375.319	
Etekin negatiboaren konpentsazioa	2.290.914	1.958.035	2.137.156	2.437.197	2.444.550	2.317.819	1.984.870	833.322	890.060
Likidazio-oinarri erregularra	443.034.833	474.479.724	516.041.374	555.762.110	597.616.800	618.228.134	607.541.059	552.431.529	563.217.330
Likidazio-oinarri ez-erregularra	3.746.519	6.159.101	10.380.663	10.275.370	11.977.816	16.544.609	29.460.025	40.395.177	35.609.109
Likidazio-oinarria	448.085.622	480.638.825	526.422.037	566.038.943	609.594.617	634.774.184	675.415.547	592.884.679	599.170.323
Likidazio oinarria	448.085.622	480.638.825	526.422.037	566.086.029	609.594.617	634.768.806	676.383.285	592.886.210	599.169.988
Kuota erregularra	81.475.193	89.120.447	97.059.291	106.183.325	115.932.842	119.924.115	119.196.009	137.353.631	140.454.011
Kuota oso ez-erregularra	731.741	1.200.571	2.007.696	1.897.550	2.174.233	2.443.069	4.757.480	7.347.341	6.409.638
Kuota osoa	82.467.788	90.320.429	99.060.742	108.077.178	118.102.444	122.348.966	131.248.479	144.709.271	146.971.255
Kuota osoa	82.467.788	90.320.429	99.060.742	108.084.849	118.102.444	122.348.142	131.314.464	144.710.238	146.970.745
Kuotako kenkariak:									
Ondorengoak	4.923.454	4.968.941	4.964.905	4.922.337	4.781.098	4.592.878	4.832.756	5.451.570	
Aurrekoak	234.412	234.344	239.472	246.242	239.005	202.164	213.532	169.705	
Familia unitateko kideak (u.f.>65) urte	741.839	827.441	895.204	1.011.169	1.071.954	1.098.138	1.079.884	1.144.030	
Minusbaliatuak	891.839	1.086.398	1.339.977	1.537.962	1.666.987	1.682.549	1.766.311	1.759.049	
Gaixotasun gastuak	518.317	691.054	847.951	998.813	1.171.300	1.334.051	1.480.734		
Etxebizitzaren alokairua	98.519	110.494	177.522	241.440	282.797	309.086	319.943	298.274	357.924
Seme-alaben zaintza	11.000	12.598	12.704	14.394	15.831	17.741	17.713	13.196	
Lanaren etekina	9.656.279	9.735.096	11.017.105	11.181.183	11.601.208	11.806.215	11.732.362	20.800.567	21.011.300
Baterako aitortpena	8.448.187	8.473.504	8.278.456	8.523.777	8.500.248	8.718.899	8.718.672		
Bizi aseguruaren primak	471.305	570.027	711.760	900.563	952.587	1.066.610	1.183.791		
Etxebizitzako kontua	429.795	526.348	555.392	635.469	767.323	911.941	1.015.886		
Ohiko etxebizitzaren inber.l	2.318.069	2.623.457	3.210.378	3.509.063	3.994.435	4.571.865	5.227.923	10.965.013	12.946.067
Inber., beste etxebizitza batzuk	68.024	63.206	52.629	32.456	23.385	21.408	20.037		
Dohaintzak	59.566	98.244	131.155	140.384	250.261	320.803	437.898	394.191	435.714
Kultur intereseko ond. inber.	1.065	937	1.008	743	910	1.915	1.385	1.814	-3.654
Errenta-emaielen ordain fiskalak					485	1.802	1.846	1.813	1.899
Enpr. eta profesionalen inb.	226.001	171.345	168.284	209.234	227.969	295.551	366.610	478.996	598.832
Enpr. eta prof. enplegua sortzea	48.793	36.466	20.378	34.591	28.049	46.197	71.881	108.325	157.981
Tributatu duten dibidenduak	1.044.752	950.781	897.576	4.171.387	4.549.720	4.777.125	5.102.705	5.273.367	6.464.195
Obligazioen atxikipen. hobar.					99.250	77.719	67.907	73.776	71.726
Nazioarteko ezarpen bikoitza	6.673	10.643	16.151	13.939	12.019	13.132	13.054	24.827	57.269
Sozietate gardenak	94.638	50.795	33.226	314.148	123.958	133.186	283.158	469.796	705.217
Aurreko urteetako kuota oso neg.	5.441	14.458	22.010	438	1.425				
Inbertsioaren hob. galtzea	49.451	61.472	58.855	76.013	37.619	48.099	46.877	68.429	81.385
Kuota likidoa	56.862.754	63.662.405	69.886.340	74.158.432	82.412.132	85.273.968	92.375.325	100.025.949	105.791.993
Konturako atxikipenak	60.275.816	63.828.698	68.022.793	74.755.967	82.864.187	86.080.878	92.175.642	97.591.869	106.175.657
Ordainketa zatiak	3.135.736	3.626.646	3.825.046	3.854.242	4.185.093	4.442.218	4.707.780	5.052.150	5.574.297
Auto-likidazioaren kopurua	(6.548.798)	(3.792.939)	(1.961.499)	(4.451.495)	(4.625.190)	(5.271.592)	(4.595.876)	(1.621.168)	(5.963.686)

II. eranskina. 1998-2000 urteetako aitorten gaineratua

(Aitorten gaineratua; pezetak, milakotan)

	1998	1999	2000
Lanaren etekinak	541.686.125	622.826.502	679.894.636
Higigarren kapitalaren etekinak	34.398.130	33.865.197	39.335.937
Higiezinen kapitalaren etekinak	(1.793.057)	11.593.566	12.810.989
Etekin profesionalak	22.060.980	22.811.737	24.391.566
Enpresa-jardueren etekinak	57.628.745	61.953.398	63.686.828
Zergapetze oin. posit. garden. fisk.	2.262.769	2.482.690	2.807.183
Gehikuntza erregular garbiak	4.108.179	3.904.588	4.669.242
Zerga-oinarri erregularra	648.794.423	759.436.745	827.578.312
Kenkariak:			
Gutxieneko pertsonala			231.426.515
Gutxieneko pertsonala, ondorengoak			32.158.428
Gutxieneko pertsonala, aurrekoak			918.859
Gutxieneko pertsonala, minusbaliatuak			1.817.421
Gutxieneko pertsonala, lagunduak			73.300
Gizarte Segurantzak			130.798
Gutxieneko pertsonala eta familiarra eta gizarte segurantzak			266.469.112
Nahitaezko mutualitateak	282.429	333.126	333.352
Pentsio planetan dirua sartzea	13.282.967	15.229.783	18.483.893
Ezkontideen pentsio planak			531.857
Minusbaliatuen pentsio planetako ekarpenak			40.619
Urteko ordainketak, elikagaiengatik	394.978	430.634	667.194
Gutxieneko pertsonala, subjektu pasiboa		163.481.694	208.515.449
Gutxieneko pertsonala, ezkontidea		28.375.319	36.575.923
Ordainak:			
Etekin negatiboen ordainak	1.984.870	833.322	890.060
Likidazio oinarri erregularra	607.541.059	552.431.529	563.217.330
Likidazio-oinarri ez-erregularra.	29.460.025	40.395.177	35.609.109
Likidazio oinarria	676.383.285	592.886.210	599.169.988
Kuota erregularra	119.196.009		
Kuota oso ez-erregularra	4.757.480		
Atxikitako ondasunen kuotako kenkaria	28.310		
Kuota orokorra		137.353.631	140.454.011
Kuota berezia		7.347.341	6.409.638
Kuota osoa	131.314.464	144.710.238	146.970.745
Kuotako kenkariak:			
Ondorengoak	4.832.756	5.451.570	
Aurrekoak	213.532	169.705	
Familia unitateko kideak .>65 urte	1.079.884	1.144.030	
Minusbaliatuak	1.766.311	1.759.049	
Pertsona lagundua	5.890	11.625	
Gaixotasun gastuak		1.480.734	
Etxebizitza alokatzea	319.943	298.274	357.924
Seme-alaben zaintza	17.713	13.196	
Lanaren etekinak	11.732.362	20.800.567	21.011.300
Baterako aitortpena	8.718.672		
Bizi aseguruaren primak	1.183.791		

	1998	1999	2000
Etxebizitzako kontua	1.015.886		
Ohiko etxebizitzaren inbertsioa	5.227.923	10.965.013	12.946.067
Beste etxebizitza batzuetako inbertsioa	20.037		
Dohaintzak	437.898	394.191	435.714
Interes kultureleko ondasunetan inbertitzea	1.385	1.814	(3.654)
Enpresaburuen eta profesionalen inb.	366.610	478.996	598.832
Enpr. eta profesionalen enple. sortzea	71.881	108.325	157.981
Tributatu duten dibidenduak	5.102.705	5.273.367	6.464.195
Kuota likidoa.		100.522.028	106.537.838
Errenta-emaitzen ordain fiskalak	1.846	1.813	1.899
Obligazioen atxikipenen hobariak	67.907	73.776	71.726
Nazioarteko ezarpen bikoitza	13.054	24.827	57.269
Sozietate gardenak	283.158	469.796	705.217
Ceuta, Melilla eta beste batzuen errentak		3.602	4.135
Inbertsioaren hob. galtzea	46.877	68.429	81.385
Kuota likidoa/aurretiko kuota dif.	92.375.325	100.025.949	105.791.993
Konturako atxikipenak.	92.175.642	97.591.869	106.175.657
Zatikako ordainketak.	4.707.780	5.052.150	5.574.297
Auto-likidazioaren zenbatekoa	(4.595.876)	(1.621.168)	(5.963.686)

III. eranskina. 1992-1998 aitorten gaineratua. Ehunekoen alderaketa. 1992. urtea = 100

	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998
Lanaren etekinak	100	106	119	129	139	147	156
Higigarren kapitalaren etekinak	100	106	91	99	109	88	75
Higiezinen kapitalaren etekinak	100	440	319	(801)	(1.297)	(1.001)	(512)
Etekin profesionalak	100	110	122	131	146	151	170
Enpresa-jardueren etekinak	100	116	129	140	152	159	164
Zergapetze oin. posit. garden. fisk.	100	118	83	140	110	112	133
Gehikuntza erregular garbiak	100	113	99	81	118	164	172
Zerga-oinarri erregularra	100	107	117	126	136	141	146
Nahitaezko mutualitateak	100	105	120	172	177	190	245
Pentsio planetan dirua sartzea	100	142	175	203	256	325	409
Urteko ordainketak, elikagaiengatik	100	40	44	48	50	61	59
Etekin negatiboen ordainak	100	85	93	106	107	101	87
Likidazio oinarri erregularra	100	107	116	125	135	140	137
Likidazio-oinarri ez-erregularra.	100	164	277	274	320	442	786
Likidazio oinarria	100	107	117	126	136	142	151
Kuota erregularra	100	109	119	130	142	147	146
Kuota oso ez-erregularra	100	164	274	259	297	334	650
Kuota osoa	100	110	120	131	143	148	159
Kuotako kenkariak:							
Ondorengoak	100	101	101	100	97	93	98
Aurrekoak	100	100	102	105	102	86	91
Familia unitateko kideak .>65 urte	100	112	121	136	144	148	146
Minusbaliatuak	100	122	150	172	187	189	198
Gaixotasun gastuak	100	133	164	193	226	257	286
Etxebizitza alokatzea	100	112	180	245	287	314	325
Seme-alaben zaintza	100	115	115	131	144	161	161
Lanaren etekinak	100	101	114	116	120	122	121
Baterako aitortpena	100	100	98	101	101	103	103
Bizi aseguruaren primak	100	121	151	191	202	226	251
Etxebizitzako kontua	100	122	129	148	179	212	236
Ohiko etxebizitzaren inbertsioa	100	113	138	151	172	197	226
Beste etxebizitza batzuetako inbertsioa	100	93	77	48	34	31	29
Dohaintzak	100	165	220	236	420	539	735
Interes kultureleko ondasunetan inbertitzea	100	88	95	70	85	180	130
Enpresaburuen eta profesionalen inb.	100	76	74	93	101	131	162
Enpr. eta profesionalak enple. sortzea	100	75	42	71	57	95	147
Tributatu duten dibidenduak	100	91	86	399	435	457	488
Nazioarteko ezarpen bikoitza	100	159	242	209	180	197	196
Sozietate gardenak	100	54	35	332	131	141	299
Aurreko urteetako kuot. oso negat.	100	266	405	8	26	0	0
Inbertsioaren hob. galtzea	100	124	119	154	76	97	95
Kuota likidoa.	100	112	123	130	145	150	162
Konturako atxikipenak.	100	106	113	124	137	143	153
Zatikako ordainketak.	100	116	122	123	133	142	150
Auto-likidazioaren zenbatekoa	100	58	30	68	71	80	70

IV. eranskina. Aitorpen-egileen, likidazio-oinarriaren eta likidazio-oinarriaren tarteen araberako kuota osoaren ehunekoak. 1998, 1999 eta 2000. urteak

	1998 Aitorpen- egileak, %	1998 Likidazio- oinarria, %	1998 Kuota osoa, %	1999 Aitorpen- egileak, %	1999 Likidazio- oinarria, %	1999 Kuota osoa, %	2000 Aitorpen- egileak, %	2000 Likidazio- oinarria, %	2000 Kuota osoa, %
Likidazio oinarria 500.000 pezeta baino txikiagoa	26,78	1,43	0,10	38,39	1,92	1,26	39,79	1,89	1,27
Likidazio-oinarria 500.001 eta 1.000.000 pezeta bitartekoa.	12,19	5,11	1,49	11,53	5,55	4,26	10,82	5,23	4,03
Likidazio-oinarria 1.000.001 eta 2.000.000 pezeta bitartekoa.	25,88	21,33	14,50	22,64	21,14	18,05	21,65	20,54	17,58
Likidazio-oinarria 2.000.001 eta 3.000.000 pezeta bitartekoa.	17,17	23,01	20,53	13,22	20,84	19,19	13,10	20,76	19,06
Likidazio-oinarria 3.000.001 eta 4.000.000 pezeta bitartekoa.	9,77	18,35	19,10	7,06	15,43	15,04	7,18	15,83	15,35
Likidazio-oinarria 4.000.001 eta 5.000.000 pezeta bitartekoa.	3,70	8,92	10,26	2,88	8,14	8,26	3,04	8,68	8,74
Likidazio-oinarria 5.000.001 eta 7.500.000 pezeta bitartekoa.	2,88	9,38	12,22	2,55	9,76	10,99	2,67	10,29	11,37
Likidazio-oinarria 7.500.001 eta 10.000.000 pezeta bitartekoa.	0,84	3,89	5,85	0,87	4,77	6,02	0,87	4,80	5,90
Likidazio-oinarria 10.000.001 eta 15.000.000 pezeta bitartekoa.	0,48	3,09	5,37	0,50	3,79	5,24	0,49	3,75	5,07
Likidazio oinarria 15.000.000 pezeta baino handiagoa	0,32	5,49	10,59	0,36	8,67	11,69	0,39	8,24	11,63
Oso-tara	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

V. eranskina. Diruzaintzako mugimenduak. 1998. urteko PFEZa

	Zenbateko osoa (pezetak, milioitan)	NAN- IFZ zk.	Gutzizko kopurua %	NAN- IFZ zk.
Laneko atxikipenak	79.683	19.142	% 85	% 6
Kapital atxikipenak	11.604	1.124	% 12	% 0
Ordaintzen zatiketa	4.837	20.878	% 5	% 7
Kapitalaren atxikipena, hilekoa	307	41	% 0	% 0
Kapitalaren atxikipena, inplizitua	41	17	% 0	% 0
Kapitalaren atxikipena, errentamenduak barne	1.657	7.008	% 2	% 2
98.129	48.210			
Zenbateko negatiboak- 18.751				
Zenbateko positiboak- 14.792				
Amaierako likidazioa, errenta- 3.959	-3.959	260.662	% -4	% 84
1998ko PFEZa, guztira	94.170	308.872	% 100	% 100

	500	-11	101			
	501	10.000	10	2.002		% 4
	10.001	100.000	1.036	18.229	% 1	% 38
	100.001	1.000.000	6.667	21.183	% 7	% 44
	1.000.001	5.000.000	10.512	4.734	% 11	% 10
	5.000.001	25.000.000	15.955	1.583	% 16	% 3
	25.000.001	50.000.000	6.616	190	% 7	
Tarteak	50.000.001	100.000.000	6.331	91	% 6	
pezetatan	100.000.001	10.000.000.000	51.013	97	% 52	
			98.129	48.210	% 100%	% 100

Tuterako Foruzaingoaren polizia etxeko obren kontratazio espedienteari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urriaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Tuterako Foruzaingoaren polizia etxeko obren kontratazio espedienteari buruzko fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko urriaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Tuterako Foruzaingoaren polizia etxeko obren kontratazio espedienteari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Xedea, helburuak eta norainokoa (22. or.).
- II. Aurrekariak (22. or.).
- III. Iritzia eta ondorioak (23. or.).
- IV. Espedientearen analisia (23. or.).
 - IV.1. Obren kostua (23. or.).
 - IV.2. Proiektuak (23. or.).
 - IV.3. Lurrak (25. or.).
 - IV.4. Obrak (25. or.).
 - IV.5. Obren zuzendaritza (27. or.).

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariak aurkeztutako alegazioak (27. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (28. or.).

I. XEDEA, HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua talde parlamentarioaren eskariz, 2002ko urtarrilaren 30ean erabaki zuen Comptos Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea, "Tuterako foruzaingoaren polizia etxea eraikitzeke obra kontratatu eta betetzearen gainekoa."

Akordio horren baitan, eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak dioenarekin bat, fiskalizazio txosten hau egiteari ekin zaio.

Eskari horri erantzunez, lanaren muina izan da polizia etxe hori eraikitzeke obraren espediente

osoa aztertzea, eta, batez ere, Kontratuei buruzko Foru Legeak eta gainontzeko araudiak ezartzen dutenari egokitzen zaion aztertzea.

Gure azterketa egitean, inguruabarrak kontuan harturik beharrezkoak iruditu zaizkigun auditoretza-prozedurak eta -arauak aplikatu ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Lehendakariak Departamentuko Barne Zuzendaritza Nagusiko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzaren-gatik.

II. AURREKARIAK

Tuterako Foruzaingoaren polizia etxea eraikitzeke obren aurrekariak 1992koak dira, "Foruzaingoaren antolamendu eta eginkizunei buruzko plan zuzendaria" aurkeztu baitzuen Gobernuak urte hartako aurrekontu orokorreari buruzko foru legean xedatutakoa betetzeko.

Nafarroako Parlamentuak 1994ko ekainaren 28an onetsi zuen Nafarroako Foruzaingoaren antolamendu eta eginkizunei buruzko plan zuzendaria. Plan horretan Foruzaingoari emaniko izaera da Nafarroako polizia integralarena, kideen kopurua handitu eta foru lurraldean hedatzen joan ahala eginkizun berriak hartuko dituen bere gain. Gai horri buruzko ebazpenen artean xedatzen zuen ezen hiru hilabeteko epean Nafarroako Gobernuak proiektu zehatz bat igorri beharko zuela Parlamentura, Tuteran aurreikusiriko polizia etxea abian jartzeko helburuak, epeak eta bertan inbertitu beharreko baliabideak zehazturik.

Asmo horrekin, 1994. urtearen amaieran proiektu hori aurkeztu zen, bertan adierazirik, parkea "Tuterako zerbitzuen gunean" dauden bi lursailetan kokatuko dela, hiriaren hegoaldean, N-232 (Logroño-Zaragoza) eta N-121-C (Tutera-Tarazona) errepideen bidegurutzaren ondoan eta Ebroren autobidetik hurbil (A-68). Lursail horiek 4.794 m² hartzen zuten guztira eta Tuterako Udalak Nafarroako Gobernuari lagatzeko tramiteak betetzen ari ziren. Lekuari oso egokia iritzi zitzaion, Tuterarekin oso ongi komunikaturik egoteagatik eta eskualdeko gainerako gunetara dituen irteerengatik.

Lursail horietan aurreikusirik zegoen egitea 1.200 m²-ko azalera eraikia izanen zuten instalazio batzuk, eta beste 1.000 m² sestra azpian, garaje eta tailerretarako. Agiriak Tuterako destakamenduari eman beharreko giza eta gauza baliabideen aurreikuspena egiten du eta 1995eko

azken hiruhilekoan jartzea aurreikusi. Kalkulaturik dago, halaber, polizia etxea eraikitzeko kostua - 131 milioi pezeta, 1994ko prezioetan-; horri urbanizazio, proiektu, obra zuzendaritza eta altzarien gastuak gehituta, gastuak, osotara, 225 milioi pezeta egiten du. Instalazioak 1995. urtearen amaieran egon behar zuten amaiturik, eta orduan kokatuko zen bertan destakamendua.

1995eko maiatzean gure azterketaren xede diren lanen proiektua kontratatzeke espediente onetsi zen, eta urtebete beranduago lursailaren kokapena aldatzeko erabakia hartu zen, espedientearen azterketan adierazten den bezala.

III. IRITZIA ETA ONDORIOAK.

Eginiko azterketatik atera dugun ondorioa da Tuterako Foruzaingoaren polizia etxea aplikatze-koa den legeriari jarraikiz eraiki dela. Edonola ere:

- Eraikina egiteko hasieran hautatutako lursaila baztertu eta haren ordeztatu erabat bestelakoa zen beste bat hartzeko erabakiak, proiektua ia gauzaturik zegoela hartutakoak, behin betiko proiektua atzeratu eta oztopatu zuen, eta eragina izan zuen ondoren ere, eraikitze fasean.

- Alderdi horretantxe antzeman daitezke proiektuan eragina duten formazko zenbait akats,

gainbegiratzea, jasotzeko akta eta obren zuinketa, besteak beste.

- Aipatu dugun lursailaren aldaketak hasierako proiektuan eragin zuen desegokitasuna, eraikuntzaren sektorean gertatu zen prezioen igoera eta eraikinaren izaera berezia direla-eta, adjudikaturiko prezioa ehuneko 44ko igoerako desbideraketa izan zuen. Baina nabarmendu behar da adjudikazioa ehuneko 21 merkeago egin zela.

Polizia etxearen lanen kostua, osotara, 909 milioi pezetakoa izan zen, barne harturik hainbat kontzeptu: proiektuak (18 milioi), lurrak (23 milioi), obra (835 milioi) eta obra zuzendaritza (33 milioi).

Azkenik, gure lana egin ondotik jakin ahal izan dugu Lehendakaritza Departamentuak baduela txosten bat eraikuntza enpresak berriki eginiko eskaera bat, obren azken likidazioarekin lotutako zenbait kontzeptu direla-eta 89,7 milioi pezeta kobratzeko, atzera botatzen duena.

IV. ESPEDIENTEAREN ANALISIA

IV.1. OBREN KOSTUA

Gastuen kontzeptu ezberdinak direla eta ordaindutakoa, guztira, hauxe da:

(Pezetak, milakotan)

Kontzeptua	Proiektuak	Lurrak	Obra	Obra zuzendaritza	Guztira
Polizia etxearen eraikina	13.103.411	22.907.814	685.670.785	29.288.682	750.970.692
Urbanizazioa.	4.930.000		149.313.445	3.944.000	158.187.445
Guztira	18.033.411	22.907.814	834.984.230	33.232.682	909.158.137

Taulan ikus dezakegunez, gastua, guztira, 909 milioi pezetakoa da.

Ondoren aztertuko ditugu kontzeptuak banaban:

IV.2. PROIEKTUAK

Proiektu horiek direla-eta ordaindutako zenbait tekoak, entregatzeko datak eta adjudikatzeke sistema azaltzen dira, zehazturik:

(Pezetak, milakotan)

Proiektua	Entregatzeko eguna	Zenbatekoa	Adjudikatzeko sistema
Hasierako exekuzioa	11.06.96	6.875.000	Lehiaketa irekia
Xehetasun azterlana	11.06.96	550.211	Zuzena
Proiektua handitzea	16.06.96	812.000	Zuzena
Elektrizitatearen instalazioa eta instalazio bereziak	09.09.96	951.200	Publizitaterik gabe negoziatua
Aire egokituaren eta kontrol sistemen instalazioa	09.09.96	1.832.800	Publizitaterik gabe negoziatua
Hasierako proiektuaren aldaketa	16.07.98	986.000	Zuzena
Segurtasun eta osasun azterlana	23.07.98	1.096.200	Publizitaterik gabe negoziatua
Zati hau, guztira		13.103.411	
Urbanizazio proiektua	31.12.00	4.930.000	Publizitaterik gabe negoziatua
Oсотara		18.033.411	

Hasierako proiektuaren aldaketa Barne zuzendari nagusiak 1995eko maiatzaren 17an emaniko Ebazpenaren bidez, Tuterako Foruzaingoaren parkea egiteko proiektuaren erredakzioa lehiaketa irekiaren bidez kontratatzeke espediente onetsi zen. Lehiaketara 23 lizitatuak aurkeztu ziren. Kontratua 1995eko uztailaren 4an adjudikatu zen 6.875.000 pezetako prezioan eta exekuziorako lau hilabeteko gehieneko epearekin.

Eraikina "Tuterako errepide zerbitzueterako eskualdeko zentroaren" lursailean jartzea aurreikusitua zen hasiera batean. Proiektua idazten ari zela, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen hasiera batean hautatutako lursailaren ordez poligono beraren beste muturreko lursail bat hautatzea. Kokapena aldatzeko, ordea, xehetasun azterlan bat onetsi behar izan zen 1996ko maiatzean.

Ondoren, 1996ko uztailaren, aire egokituko instalazioaren eta kontrol sistemen proiektua eta elektrizitatearen eta instalazio berezien proiektuak enkargatu ziren.

Aurrerago, aldaketa batzuk eta hasiera batean onetsitako beharrezko programaren zenbait zabalpen egin ziren; hori dela eta, 1996ko irailean, proiektua egiteko kontratuaren zabalpena onetsi zen. Azkenik, 1998ko ekainean, jatorrizko proiektua aldatzeko proiektua eta segurtasun eta osasun azterlana kontratatu ziren.

1999ko irailaren 27ko Foru Aginduz, 10 milioi pezetako gastua baimendu zen lursaila urbanizatzeko proiekturako; 1999ko azaroaren 25ean adjudikatu zen, 8,8 milioitan. Lanak burutzeko epea 2000ko abenduaren 31n bukatzen zen.

Aipaturiko proiektu eta azterlanak kontratatzeke espedienteak aztertutik, ondorio eta gomendio hauek aipa daitezke:

- Hasierako proiektuaren adjudikazioan, administrazio baldintzen pleguak ez du formula zehatz bat ezartzen adjudikazioaren irizpideak baloratzeke.

- Ez dago jasota kontratazio-organoak laguntza teknikoko zuzendaria kontratatzea, proiektua zuzen betetzen den ikuskatzeko, zaintzeko, koordinatzeko eta egiaztatzeke, administrazio baldintza partikularren pleguak exijitu bezala.

- Espedientean ez da agertzen proiektuaren onarpen-aktarik.

Proiektuak baldintzatu zituzten inguruabar bereziek, batez ere kokapena aldatzearen ondorioz eta haien gaineko ikuskapen tekniko desegokia egitearen ondorioz, eragin nabarmena izanzen zuten gero eraikitzeke garaietan.

Honako hauek gomendatzen dugu:

- *Ahal den guztian, AKPOetan edo lizitatuak proposamenak ireki aurretik, proposamen teknikoak baloratzeke modua zehaztea.*

- *Proiektuak egoki gainbegiratzea, horrek arazoak eta obrak exekutatzeke garaietan desbideraketak gertatzea saihesteko balioko baitu, eta Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarritako formazko betebeharrak guztiak egoki betetzeke.*

IV.3 LURRAK

- Tuterako udalari 4.818 m²-ko lursail bat eta 10.655 m²-ko ondoko beste lursail bat Tuterako Udalari eskatu zitzaizkion; harekin, lagapen akordio bat izenpetu zen horretarako, ondoko kargekin:

- 36.240.000 pezetako urbanizazio gastuak eta poligonoa mantentzeko ehuneko 8ko kuota bat. Kuota hori, aurrerago, lursailak poligonoaren zati zatietan zeukan partaidetzaren lagapenarekin permutatu zen.

- Eskola Tekniko Industrialaren aurrean hasi eta Reina Sofía ospitalera bitarteko oinezkoentzako espaloia bat egitea, egungoaren semaforoekin konektatua. Espaloia hori udalari polizia etxea egi-

teko aurkezten zaion exekuzio proiektuan jaso beharko zen.

Gaur egun arte, 22.907.814 pezeta ordaindu dira lursaila urbanizatzeko gastuen behin-behineko likidazio moduan. Behin betiko likidazioa, berriz, egiteko geratu zen.

Herrilan Departamentua goian aipaturiko espaloia egiten ari da, eta ez da obretako kostu gisa jasotzen.

IV.4. OBRAK

Ondoren, eraikina egiteko eta lursaila urbanizatzeko obren exekuzioari buruzko laburpen-aula aurkezten dugu:

	Aurrekontua	Adjudikazioa	Baja, %	Aldaketak	Azken likidazioa	Adjudikatutakoaren gaineko %
Polizia etxea eraikitzea	541.861.048	424.927.430	21,58%	188.938.822	613.792.820	44,45%
Obra osagarriak	71.877.965	71.877.965	0,00%	0	71.877.965	-
Urbanizazioa.	162.401.412	136.043.656	16,23%	0	149.313.445	9,75%
Guztira	776.140.425	632.849.051	18,46%	188.938.822	834.984.230	31,94%

IV.4.1 Polizia etxea eraikitzea

Obra-kontratuaren adjudikazioa

1998ko irailaren 23ko ebazpenaz, obrak kontratatzeke espedientea onetsi zen, prozedura murriztuaz, enkantean eta presako tramiteaz, 541.861.049 pezetatan.

11 enpresa aurkeztu ziren. 1998ko azaroaren 13an, Barne zuzendari nagusiak 424,9 milioi pezetatan adjudikatu zituen obrak, haiek egiteko 24 hilabeteko epearekin.

Adjudikazio espedientea aztertuta, ondoriozta daiteke presako tramitazioa ez dagoela arrazoituta; dena den, dirudienez, presako tramitazioak ez zuen eragin berezirik izan lizitatzailen kopuruan.

Presako tramitea lege ezarritako kasuetan erabiltzea gomendatzen dugu.

Laburpen-taulan ikus daitekeen bezala, adjudikazioa ehuneko 21,58ko bajarekin egin zen; obren amaierako likidazioa, ordea, ehuneko 44,45 desbideratu zen gora.

Obren garapena; aldaketak.

Espedientean ez da jaso obrak hasi aurretiko zuinketa-akta.

Obra-kontratuaren lehen aldaketa 1999ko apirilaren 10ean planteatu zen; gero, beste hiru egin ziren. Horien emaitza ondoko taulan aurkezten dugu:

Adjudikazioaren prezioa	424.927.430	
Obraren desfaseak:	Zenbatekoa	Adjudikatuaren gaineko %
Unitate berriak, proiektuan aurreikusi gabeak	232.754.505	% 54,78
Proiektuan jasotakoa baino neurketa handiagoak	83.822.728	% 19,73
Proiektuaren gainetik erantsitakoak, guztira	316.577.233	% 74,50
Unitateak deuseztatzea eta proiektuan jasotakoa baino neurketa txikiagoak	117.432.919	% 27,64
Unitateak deuseztatzea eta aldaketetan jasotakoa baino neurketa txikiagoak	13.018.852	% 3,06
Proiektuan jasotatik kendutakoak, guztira	130.451.772	% 30,70
Proiektuan jasotatik eginiko aldaketa garbiak	186.125.461	% 43,80
Segurtasunaren eta osasunaren arloan eginiko aldaketa garbiak	2.813.364	% 0,66
Aldaketak, guztira	188.938.825	% 44,46
Kontratuaren zenbatekoa, 2001eko abuztuaren 17an	613.866.255	

Hau da, hasierako kontratua 188,9 milioi pezetatan handitu zen, hain zuzen adjudikatutako kopuruaren ehuneko 44,46. Hori guztia beste unitate batzuk gehitu izanari eta proiektuan jasotakoaren gainetiko neurketei —316,6 milioi pezeta— eta proiektuan jasotakoa baino neurketa txikiagoei —130 milioi pezeta— zor zaie.

Aldaketa horiek guztiek argi erakusten dute obraren proiektuak gabezia nabarmenak zituela, exekuzio-aurrekontua batetik % 74,5 igo eta bestetik % 30,70 jaitsi baitzen; amaierako emaitza garbiak gastua % 44,46 igo izana erakusten du.

Obrak onartzeko akta 2002ko otsailaren 4an egin zen, eta egiaztatu zen obrak amaiturik zedula eta ez zegoela behin betiko onarpena balio-gabetuko lukeen garrantzizko akats edo gabeziarik; harekin batera, egiteke dauden lanak jasotzen dituzten eranskinak daude, eta enpresak, behar dituen material eta hornidurak izan bezain laster, bere gain hartzen du haiek egiteko konpromisoa.

Kontratuei buruzko Foru Legea aplikatzea gomendatzen dugu, eta proiektua terrenoari egokitzen zaiola eta obrak behar bezala has daitezkeela ziurtatzeko behar diren zuinketa-aktak egitea.

IV.4.2. Obra osagarriak

Barne zuzendari nagusiaren 2001eko urriaren 4ko ebazpenaz, Tuterako polizia etxearen obra osagarriei buruzko espedientea onetsi zen eta 71.877.965 pezetako gastua baimendu zen;

2001eko urriaren 15ean, obra horien kontratua formalizatu zen; hura betetzeko epea, berriz, 2001eko urriaren 31ra artekoa zen. Obra horiek 2001eko abenduaren 31n ziurtatu ziren eta 2002an ordaindu. Obren exekuzioa eta likidazioa bat dator, zorrozki, adjudikatutako kopuruarekin.

Adjudikazio hau arrazoitzeko, Kontratuei buruzko Foru Legea aipatzen da, zeren eta publikotasunik gabe negoziaturiko prozedura erabil baitaiteke kasuan kasuko proiektuan edo obra-zein laguntza-kontratuan agertzen ez diren obra edo laguntza osagarriak —eta halere, egin beharrekoak— egiteko, betiere zenbateko osoa adjudikazio prezioaren ehuneko 20tik gorakoa ez bada, eta exekuzioa kontratista nagusiaren esku uzten bada; obrak hasierako kontraturako ezarri ziren prezioekin eginen dira, hala behar denean, kontradikzio bidez ezartzen direnekin.

Obra osagarri horiek segurtasuneko ekipamendu eta instalazioei zegozkien. Horrek berriz ere agerian uzten ditu obren proiektuaren gabeziak.

IV.4.3 Urbanizazioa

Abuztuaren 22ko 194/2000 Foru Aginduaren bitartez, urbanizazio obrak kontratatuzeko espedientea onetsi zen, lehiaketa bitartezko prozedura irekia erabiliz; halaber, 162.401.412 pezetako gastua baimendu zen eta kontratazio mahaia izendatu zen.

Adjudikazioa 2000ko urriaren 17an egin zen, 136 milioi pezetatan; amaierako prezioak, ordea, 149,3 milioi egin zuen; horrek % 9,75eko desbideraketa egiten du.

IV.5. OBREN ZUZENDARITZA

Obren zuzendaritza proiektuak idatzi zituzten teknikariei adjudikatu zitzairen. Hona zenbatekoak:

	Adjudikazioa	Ordainketak	Aldaketak, %
Arkitekturako zuzendaritza	9.888.783	11.465.362	% 15,9
Ingeniaritzako zuzendaritza	4.589.104	4.589.104	% 0
Aparejadorearen zuzendaritza eta seg. eta osasun. koor.	11.657.637	13.234.216	% 13,5
Obra zuzendaritza, urbanizazioa	3.944.000	3.944.000	-
Zuzendaritzaren kopurua, guztira	30.079.524	33.232.682	% 10,4

Kontratazio eta adjudikazio espedienteen onarpena egintza berean eman zen Barne zuzendari nagusiaren ebazpenaz, presako tramiteaz eta publizitaterik eta lehiaketarik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, proiektuaren berariazkotasun teknikoan oinarrituta.

Kontratuak 1999ko urtarrilaren 15ean egin ziren.

Presaren interes publikoko arazoietan oinarritzen zen, eta zuzendaritza fakultatiboa izendatzeko beharrezkoak, hain zuzen ere obren exekuzio materialari ekin ahal izateko haiek adjudikatu eta bi hilabete iragan baino lehen.

Proiektuaren berariazkotasun teknikoa eraiki beharreko eraikinaren berezitasunean oinarritzen zen.

Txostena egiteko arduraduna den Francisco Javier Sesma Masa jaunak proposatuta ematen da, indarrean dagoen arautegian aurreikusitako bitarteko guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko urriaren 15ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Tuterako Foruzaingoaren polizia etxea eraikitzeko proiektu fakultatiboaren exekuzioak hasiera batean aurreikusten zuen lekua Tuterako errepide zerbitzuetarako eskualdeko zentroan erreserbatutako eta eskura jarritako bi lursail ziren. Aurrerago, 1995eko legegintzaldi berria hasi ondoren, eraikina lekuz aldatzea erabaki zen; erabaki horrek —asmatu nahiz ez asmatu— atzerapen erabakigarria izanzen zuen obren hasieran, fiskalizazioko

behin-behineko txostenak berak azaltzen duen bezala.

1996an Nafarroako Gobernuak berriz aldatu zenean, baliabideekin eraginkortasunez eta ekonomiaz jokatzeko, jasotako proiektua onartu eta polizia etxea egiteko obrak hasi ziren, haren arabera; exekuzio aldiko zenbait inguruabarren ondorioz, ordea, aldatuta batzuk egin behar izan ziren, bai bertako segurtasun neurriak areagotzeko probisioei zegokienean, bai obrak adjudikatu eta ondoren arauz sortutako edo ezarritako osasunaldintza berriak sartu beharri zegokionean ere.

Legeak ezarritako kasuetan presako tramitea erabiltzeko gomendioari buruz, guztiz ados gaude; horrenbestez, gomendioa ontzat ematen dugu. Hala eta guztiz ere, Foruzaingoa Nafarroako Erriberan hedatzeak sortutako igurikapenak, hedabideen eta gizartearen presioa eta, batez ere, Foruzaingoaren plan zuzendariak ezarritakoak betetzeko interesa —1994an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak, baina aipatu inguruabarren ondorioz polizia etxea eraikitze lanetan atzerapena zegoen—, argudio bezala erabili ez baziren ere, nahikoa oinarri iruditu zitzaizkigun obrak presako tramiteaz kontratatzeke. Tramitazio mota horrek, dena den, ez zuen lehiakortasuna mugatu: 11 enpresa aurkeztu ziren lizitaziora. Kontratuak, berriz, enkante bidezko prozedura murriztuaz adjudikatu zen, indarreko legeetan ezarritako publizitate betebeharrak guztiak betez.

Gainerako gomendioak berdin onartzen ditugu eta, horrenbestez, behar diren erabakiak hartuko dira planteatutakoei merezi duten arreta emateko.

Iruñean, 2002ko urriaren 9an

Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak "Tuterako Foruzaingoaren polizia etxeko obren kontratazio espedienteari" izeneko behin-behineko txostenari egin dizkion alegazioak aztertuta, alegazio horiek txostenari erantsi dizkiogu.

Comptos Ganberak, berriz, berretsi egiten du behin-behineko txostenean esandakoa, eta hortaz, behin betikotzat jo du hura.

Iruñean, 2002ko urriaren 15ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 40,27 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	--